

Richard Bourhis, Québec-eko Unibertsitateko aditua

"Euskararen egoeraren erretratu ona aterako da III. Inkestaren emaitzak aztertu ondoren"

J oan den ekainaren 17tik 21era Euskal Herrian izan genuen Richard Bourhis, Québec -eko Unibertsitateko aditua. Bisitaren helburu, III. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak aztertzea. III. Inkestaren lehen emaitzak irailaren amaiera orduko jakinaraziko dituzte eta 1991tik 2001era doan aldiko ikuspegi osatua eskainiko digu. Bitartean, gaiaren inguruan atseginez mintzatu zaigu Richard Bourhis.

Berripapera: Zer azpimarratuko zenuke, hasteko, Inkestaren inguruan?

Richard Bourhis: Bere handitasuna. Euskararen egoeraren erretratu ona aterako da. Galdera asko egin dira, 6.000 laguni baino gehiagori, ahalik eta emaitza fidagarrienak lortzeko asmoz. Ez ohikoa da, zinez, hainbeste galdera egitea... Beste lekuetan askoz gutxiago egin ohi dira.


B.: Gutxiago aski direlako? Zer dela eta hainbeste galdera?

R.B.: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kontu handiz egin nahi

du lan hori. Euskal Herriak garrantzi handiko du hizkuntzaren biziberritzea. Eta, bestalde, ikerketa egiteko ahalmena du Eusko Jaurlaritzak: legebiltzarra du, eta zergak biltzeko ahalmena. Hori ere ez da ohikoa. Euskalduna gutxiengoa da Espainiari begiratuz gero, baina erakundeen gaineko kontrola du bere lurrean.

B.: Emaitzak lantzen jardun duzue eta udazkenean jakinaraziko dituzte lehenengo ondorioak. Zer aurrera zenezake?

R.B.: Ezin ezer askorik esan. Espero zenez, gora egin du euskaraz dakiten kopuruak 16-24 urteko gazteen artean, eta gauza bera 24-35 urtekoen artean ere. Euskararen ezagutzaz ari naiz. Bigarren adin tarte hori, bestalde, A, B eta D ereduaren ezartzearekin batera dator. Horrek esan nahi du hizkuntza plangintza-baitan, eskola osagaiak esanahi handia duela. Bestalde, behera egin du euskara ama-hizkuntza duten euskaldunen kopuruak eta, aldiz,



ZALDI ERO


gora euskara bigarren hizkuntza dutenen kopuruak.

B.: Euskal Autonomia Erkidegoari buruz ari zara, oker ez banago. Zer diozu Iparraldeaz eta Nafarroaz? II. Inkestaren emaitzak kaleratu zirenean, 1996an, Iparraldean euskara itzulerarik gabeko bidean zela jakinarazi zenuten...

R.B.: Eta bere horretan irauten du, nahiz eta 16-24 urtekoetan, galera geratu egin den. Baina, garbi esanda, eskolara sartzen ez bada, akabo euskara Iparraldean, ez da aurrera-biderik izango. EKE dute, eta Hizkuntza Kontseilua, baina diru baliabideak eta logistikoak behar dira egoerari aitzitik egiteko.

B.: Eta Nafarroan?

R.B.: Nafarroan, euskarak kontra du politika giroa, antieuskara da, erabat. Baina, politika hori gorabehera, euskarak gora egin du 16-24 urte bitarteko gazteetan. Gobernuaren jardunaren kontra, euskararen eza-gutzak gora egin du. Dena dela, bi hilabete barru izango ditugu emaitza denak, eta egoeraren argi-itzalak ikusi ahal izango ditugu hiru komunitateetan.



ZALDI ERO

1

Richard Bourhis-ekin elkarrizketa

2

PERTSONAJEA: Jose Mari Satrustegi

LABURRAK: Euskara Iparraldeko Herriko Etxeetan

Deba Ibarretik Euskal Herrira

UEU eta HABEren jardunaldiak

3

Literatura Unibertsala: 99. titulua kalean

Dirulangutzen deialdiak

4

Bilbo euskara biziberritzeko prest

Linux Mandrake 8.2 euskaraz

euskararen BERRIPAPERA euskararen BERRIPAPERA euskararen BERRIPAPERA

Literatura Unibertsala: 99. titulua kalean

Jules Verne, Bernard Shaw, Carlos Fuentes eta Marcel Schwob, euskarara itzulirik

Literatura Unibertsala bildumako beste lau titulu kaleratu berri ditu Ibaizabal argitaletxeak: Jules Verneren *Mikel Strogoff*, Karlos Zabalak itzulia; Bernard Shawren *Candida*, Jon Agirrek euskaraturik; Marcel Schwoben *Bizi alegiazkoak*, Juan Garziak itzulia; eta Carlos Fuentesen *Artemio Cruzen heriotza*, Zuriñe Gotik euskaratu duena.

Honenbestez, *Literatura Unibertsala* bildumako lehen fasea burutzeko zorian da, 100. alea argitaratzea baino ez baita geratzen, hau da, *Hamlet*, Juan Garziak euskarara ekarriko duena. Hala ere, Eusko Jaurlaritza eta EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarte) ados dira eta bilduma berean beste 50 liburu itzultzeko akordioa egin dute.

Candida, Bernard Shawren antzerki lana

Bi gizonen artean erabaki behar duen emakumea da *Candida* antzerki laneko protagonistak. Duela 105 urte aurkeztu zuten ohol-tza gainean lan hau Londresen eta idazlearen lanik ezagunen artean da, *Pygmalion*-ekin batera. Bernard Shawk satira gogorak idatzi zituen bere garaiko gizarte kritikatzeko asmoz, eta antzerkigintza eraberritu zuen bere obren bitartez. Nobel saria irabazi zuen 1925ean.

Bizi alegiazkoak, Marcel Schwob idazlearena

Marcel Schwoben lanik ezagunena da *Bizi alegiazkoak*, ipuin laburrez osaturiko liburua. Ipuin historikoak dira batzuk, asmatu-rikoak beste batzuk, pertsonaia ezagunak

ageri dira batzuetan, eta guztiz ezezagunak, berriz, beste batzuetan.

Aurkezpen egunean lan honen itzultzaile izan den Juan Garziak adierazi zuenez, Borgesen *Historia de la infamia* lanaren plagioa litzateke Marcel Schwoben hau, "zehetasun bat kontuan hartuko ez bagenu, hura baino dezente lehenago idatzi zela, alegia".

Mikel Strogoff, Jules Verneren klasikoetarik bat

Jules Verne idazle ezaguna da, eta haren lan asko ere oso ezagun dira haurren, gazteen eta helduen artean. Idazle eta obra gutxi dira Jules Verne eta haren lanak baino zabalduago. Haren liburuetan agertzen ziren aurrerapen teknologikoak gainditurik dauden arren, Verneren lanak irakurri, argitaratu eta itzuli egiten dira oraindik. Mikel Strogoff lanean abentura istorioa ez ezik, tatariarrek konkistaturik duten Siberiako paisaiak, jendeak eta hiriak azaltzen ditu idazleak.

Artemio Cruzen heriotza, Carlos Fuentesen lan berritzailea

Carlos Fuentes idazle mexikarrak 1962an argitaratu zuen *Artemio Cruzen heriotza*. Egileak teknika berritzaileak erabili zituen lan honetan, hau da, teknika narraitibo eta idazkera bereziak, gaiak ere halaxe eskatzen zuelako, liburua euskaratu duen Zuriñe Gotiren arabera.

Carlos Fuentesen lanen artean ezagunenetarikoa da *Artemio Cruzen heriotza*, nahiz eta mexikarra ekarpen handiko idazlea izan.

Deialdia**Euskarazko komunikabideentzako dirulaguntzak**

Euskarazko komunikabideentzako dirulaguntzak onartu ditu Eusko Jaurlaritzak. Aurten 3.437.788 euro banatuko ditu. Diru horretatik 2.711.774 euro prentsa idatzira bideratuko dira, 576.014 euro euskarazko irrati eta herri telebistetara, eta 150.000 euro multimedian eta teknologia berrietan euskararen presentzia areagotzeko izango da.

Laguntzak jasotzeko baldintza izango da autofinantzaketak gutxienez %30ekoa izatea. Dirulaguntzak bateragarriak dira edozein erakunde publikok zein pribatuk xede berberaz eman ditzakeenekin.

Prentsa idatzirako laguntzak euskara hutsean ari diren proiektuei emango zaizkie eta eguneroko prentsari, astekariei, haur eta gazte aldizkarietara, bestelako aldizkarietara eta EAEko toki aldizkarietara banatuko zaizkie. Irratietan dagokienez, urtean astero 25 orduz euskarazko saiok emititzea da dirulaguntzak jasotzeko baldintza. Toki telebisten kasuan, astean gutxienez hamar orduz euskaraz emititzea. Multimedia eta teknologia berrietan euskararen presentzia areagotzeko laguntzak prentsa idatziko enpresek, irrati eta telebistako titularrek eta gisakoek eskatu ahal izango dituzte.

Agindua uztailaren 9an argitaratu zen EHAAren. Egun horretatik aurrera ikusgai dugu Eusko Jaurlaritzaren web-guneotan: www.ej-gv.net/ (Laguntzak eta deialdiak epean/Euskara) eta www.euskadi.net/euskara (Hizkuntza Politika / Dirulaguntza deialdiak/Komunikabideak).

Argibide gehiago nahi izanez gero, jo Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara, 945 01 80 73 telefono zenbakira.

Euskara-planak entitate pribatuetan

Entitate pribatuetan euskara-planak garatzeko dirulaguntzak ematea arautu du Kultura Sailak. Dirulaguntza hauek, 2002 eta 2003 ekitaldietan, euskara-planak gara ditzaten sektore pribatuko entitateei zuzendurik daude.

Euskara-planen bidez, entitatearen kanpo-eta/edo barne-harremanen artean hiru urteren buruan euskaraz bideratuko direnak zehaztuko dira. Horrenbestez, ezarritako helburuak betetzeko beharrezkoak diren neurriak ere aurreikusiko dira bertan, bai eta planaren komunikazio eta jarraipenerako baliabideak ere.

Helburuak zehazte aldera, hiru eredu aurkeztu dira bertan: lehenengoa, kanpo-harremanetako helburu gehienak hartzen dituena; bigarrena, kanpo-harremanetako helburuak indartu eta barneko harremanetako zenbait helburu har-

tzen dituena, eta hirugarrena, kanpo- eta barne-harremanetako helburu guztiak hartzen dituena.

Eredu bakoitza, berriz, entitate osoan, entitatea osatzen duten ataletako batean nahiz batzuetan garatu ahal izango da. Halaber, atal ezberdinetarako eredu ezberdinak aukeratu ahal izango dira.

Entitateek, hiru eredu horietako bat aukeratu ordez, zerrendako helburuetatik batzuk hartu eta plan propioa egiterik ere izango dute.

Helburu hauetarako 661.282,78 euro erabiliko da.

Agindua uztailaren 30ean argitaratu zen EHAAren. Egun horretatik aurrera ikusgai dugu Eusko Jaurlaritzaren web-guneotan: www.ej-gv.net/ (Laguntzak eta deialdiak epean/Euskara)

eta www.euskadi.net/euskara (Hizkuntza Politika / Dirulaguntza deialdiak/Entitate pribatuetan euskara planak garatzeko dirulaguntzak).

Argibide gehiago nahi izanez gero, jo Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara, 945 01 81.15 telefono zenbakira.

